



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

179. INFORMAZIO BULETINA

> 2022ko urria



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Europar Batasuna
Unión Europea

Eskualde Garapenerako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bari"

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Hacienda y Finanzas

GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> **ICOE-Ocean Energy Europe Donostian: lehendakariak Europa mailako proiektuak nabarmendu zituen, hala nola BIMEP edo Europewave**

Mutrikuko olatu-planta eta Eskoziarekiko itsas energiaren aliantza nabarmendu ziren mundu mailako konferentzia honetan

2022ko Ozeanoko Energiaren Nazioarteko Konferentzia (ICOE), bi urtez behingo zikloaren barruan, Kursaaalen antolatu dute Euskadiko Energia Klusterraren Elkarteak eta Ocean Energy Europek, Energiaren Euskal Erakundearen babesarekin. Hasiera batean, Energiaren Nazioarteko Agentziak babestu zuen. Euskadi eskualde liderretako bat da Europako Batzordeak ezarritako helburuei begira. Munduko olatu-energiaren instalazio produktiboena Mutriku dago; BiMEP saiakuntza-gunea proiektu izarra izan da Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren euskal programan. Batzordeak gehien babesten duen sektorearen garapen komertzialerako ekimena EuropeWave da, EEEK kudeatzen duena Eskoziarekin lankidetzan. Hura izan da ICOE-OEE 2022ra ordezkaria handiena ekarri zuen herrialdeetako bat. Ekitaldiaren osagarritzat, Mutriku, Zumaia, Pasaia eta Donostia bisitatu ziren.

(informazio+)

> **Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoa Deep Demonstration bizkortu du Climate-KIC klimaren aldeko EBren kidegoarekin batera**

Climate-KIC ezagutzaren eta berrikuntzaren aldeko aliantza publiko-pribatuak parte hartu zuen fase berria aurkezteko

Ekimena Foru Aldunditik abiatu zen eta Gipuzkoa Europarako trantsizio iraunkorraren proba-bankua izatea bilatzen du. Etorkizuna Eraikiz estrategiaren barruan dago, eta parte hartu duten aholkularien artean daude EBko klimari buruzko Ezagutza eta Berrikuntza Komunitatearekin (KIC) lotutakoak. Horien artean dago Andoni Hidalgo, Markel Olano ahaldun nagusiarekin eta beste hizlari batzuekin batera hitz egin zuena hedapen-fasea aurkeztean. Proiektuak 890.000 euroko zuzkidura du elikadurari (15 proiektu) eta mugikortasunari (3) buruzko bi misiotarako laguntzetan.

(informazio+)



> 2022ko urria

- > **Aldundiak 875.000 euro lortu ditu EBren Next funtsetatik gizarte-zaintzen berrikuntzarako, eta 575.000 gehiago gehituko dizkie**

Kolektibo kalteberentzako bi zatitako laguntzen deialdia iragarri du

Eider Mendoza foru bozeramaileak nabarmendu du EBtik datozen baliabideak Gipuzkoa zainketa-eredu berri baten abangoardia izateko ahaleginera bideratzen direla. Deialdiaren lehen zatian, sektore publikoko edo hirugarren (irabazi-asmorik gabeko) sektoreko proiektu berritzaileak babestuko dira, haurren, nerabeen, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen, desgaitasunen bat duten pertsonen edo bazterketa-arriskuan daudenen alde. Bigarren zatia adinekoei zuzenduta dago, Adinberri ekimenaren testuinguruan.

[\(informazio+\)](#)

- > **Eusko Jaurlaritzak Next funtsen etorrerari buruzko datuak aurkeztu ditu**

Gipuzkoako 73 udalerrri izan dira hartzaile, urriaren 21ra arte EAEra iritsitakoaren % 40,3a jasoz

Pedro Azpiazu Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak agerraldia egin zuen Eusko Legebiltzarrean, Suspertze eta Erresilientzia Tresnaren Europako funtsak Euskadira zein heinean iritsi diren jakinarazteko. Oraingoz, 1.154 milioi euro bereganatu ditu EAEk, % 84,2 Eusko Jaurlaritzaren bidez eta gainerako % 15,8a Estatuaren zuzeneko kudeaketaren bidez. Azken atal horren barruan (182,25 milioi) badaude 122 milioi toki-erakundeei banatutakoak. Hiru hiriburuek kopuru horren % 74,7 hartzen dute; Donostiak % 29,2, eta Gipuzkoako 73 udalerrri onuradunen baturak % 40,3.

[\(informazio+\)](#)



> **Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astea: Aldundiak berdintasuna ardatz duen jardunaldi bat antolatu du**

Euskalitek 2018tik antolatzen du Astea, eta Aldundiak urtero gizarte arloko hainbat ikuspegi proposatu ditu

Gizarte Politikako foru diputatuak ireki du jardunaldia, SIIS dokumentazio sozialeko zentroarekin batera. Aurreko urteetan bezala, gizarte-zerbitzuen hirugarren sektoreko erakundeak bildu ditu. Genero berdintasuna eta indarkeria matxistaren aurkako borroka bezalako erronken kudeaketa hobetzea izan dira jardunaldiaren ardatzak.

(informazio+)

> **Ibilgailu elektrikoaren PERTEa: 65,8 milioi Gipuzkoako enpresek gidatutako proiektuetarako**

Sapa, Irizar eta Fagorren inbertsioak Industria Ministerioak kudeatutakoei gehitu zaizkie, Next planaren BET Tresnaren esparruan

Ministerioak PERTE VEC (Ibilgailu elektriko eta konektatua berreskuratu eta ekonomikoki eraldatzeko proiektu estrategikoa) delakoaren funtsen banaketaren berri eman du. Gipuzkoako 3 enpresek 65,8 milioi euroko aurrekontua duten proiektuen buru dira. Ia erdia Saparen proiektuari dagokio, non ibilgailu militarretatik datorren teknologia bat automobilgintzari aplikatuko zaion, isuri txikiagoak sortzen dituen. Fagor Elektronikarenak 8,8 milioi euro jasoko ditu, erabilera profesionaleko ibilgailu elektriko mota berrientzat, baina kalitate tekniko aldetik gorapatuena izan da. Irizarrek gidatutako 21 enpresen partzuergoari berriz, 21,2 milioi esleitu zaizkio garraio konektatuko eta isurketarik gabeko busetarako eta ibilgailu industrialetarako, bai eta hidrogenoa erregai gisa duen aldaera baterako.

(informazio+)



> 2022ko urria

> **Aldundiak 0,8 milioi euro izango ditu, Next planaren BET Tresnaren kontura, sexu-indarkeriaren biktimentzako zentroetarako**

Zentroek laguntza psikologikoa, juridikoa eta soziala emango diete biktimei, senideei eta inguruko pertsonei.

Atxikipen hori urrian izapidetu zuen Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundien eskumenen arabera. 2022ko urteari dagokio aurrekontua. Aldez aurretik ekainean iragarri zuen Berdintasun Ministerioak, Next planeko Berreskuratze eta Erresilientziarako Tresnaren funtsetaz erabakitzeko konferentzia sektorialetako batean autonomia-erkidegoekin egindako akordioen ondoren. Proiektu mota hori Next planean sartzea, planak jasotzen duen alderdi sozialari eta sortu berri diren zentro horiek hasieratik izango dituzten ezaugarri berritzaileei zor zaie.

[\(informazio+\)](#)

> **2023ko Europako bigarren sei hilekoan Gizarte Ekonomiarako Donostiaren hiriburutza onartu da**

Funtsezkoa izan da Aldundiaren laguntza, beste administrazio batzuen artean. Donostian EBko ekitaldiak eta bilerak izango dira

Espaniak EBko lehendakaritza duen bitartean hiria gai horren erreferente izateko eskaera uztailean egin zuen Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak, eta urrian onartu zuen eremu horretako Estatuko Kontseiluak. Funtsezkoak izan dira kooperatibismoaren indarra Gipuzkoan eta ezagutzarekiko, erantzukizun sozialarekiko eta berrikuntzarekiko konpromisoa Donostiako ekonomian.

[\(informazio+\)](#)



ESKUALDE POLITIKA ETA KOHESIO POLITIKA

> Lehendakariak Euroeskualdea lotzen duten pasabideak berriz irekitzea defendatu zuen lehen Mugaz Gaindiko Topaketetan

Nazioz gaindiko lankidetzaz eskatu du Europa berri baten ardatz gisa, eta PLE eta POCTEFA nabarmendu ditu.

Eusko Jaurlaritzak Baionan parte hartu zuen foroaren lehen edizio honetan, lurralde-maila ezberdinetako agintariekin, Iparraldeko Mankomunitatearekin, Pirinio Atlantikoetako Departamentuarekin eta Akitania Berriko eskualdearekin batera. Hendaia salgaietarako oinezko zubia eta mugako beste hiru pasabide (Larrau, Ispeguy eta Aldudes) itxiak izan ziren pandemiaren ondorioz. Iñigo Urkulluk adierazi zuen erantzukizuna, Europa batuaren bultzatzaile bezala, mugarik gabeko harremanak eta lankidetzaz sustatzea dela. EBren etorkizunerako balioa eman zien mugaz gaindiko akordioei, hala nola EAEK Iparraldearekin duen akordioari, edo POCTEFA programaren 243 milioi euroak kudeatzen dituen Pirinioetako Lan Elkarteari.

(informazio+)

> Gipuzkoa, Nafarroa eta Baionako ganberak euroeskualde mailako lankidetzaz indartu dute eta MUBIL inplikatu dute

Transmoove partzuergoak POCTEFAren funtsak sustatuko ditu, MUBIL foru-ekimenarekin eta bere Nafarroako eta Akitaniako parekin batera

Hainbat plan iragarri dira ganbera nafarra Bihartean erakundean sartzeko. Erakunde horrek Gipuzkoako eta Baionako ganberak batzen ditu 2010etik, eta hasieratik izan du helburuetako bat EBk mugaz gaindiko lankidetzaren finantzaketa baliatzea. Nafarroako Ganbera 2018tik ari zen biek elkarlanean, eta 2019tik NAEN euroeskualdeak lagundutako lankidetzaz eta enpresa-topaketetan. Aurkeztutako proiektuen artean dago Transmoove, Mugaz Gaindiko Mugikortasun Partzuergoa. Bertan parte hartuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak sortutako MUBIL erakundeak, Nafarroako bere parekidea Naitec-Naveac eta Akitania Berrikoa, Topos. 2023rako, Transmoovek POCTEFAren finantzaketa jasotzea aurreikusi da, EBren Pirinioez gaindiko programa handia.

(informazio+)



> 2022ko urria

> PLEko Gazteen Pirinioez gaindiko II. Foroa Hondarribian

Lehendakariak, POCTEFAk, NAEN euroeskualdeak eta Equipo Europak parte hartu dute

Beste parte-hartzaile bat Europako Klima Itunaren enbaxadorea izan zen. Foroak 7 eskualdetako 60 gazte bildu ditu Hondarribiko Foru Aterpetxean, eta Nafarroarako eta Iparralderako jarduerak eta irteerak barne hartu ditu. Klima eta Pirinioetako eremua izan ditu ardatz. Erasmus+ programaren esparrutik dator Foroaren ideia. Pirinioetako Lan Elkartea 1983an sortu zen, Europako Kontseiluaren ekimenez, eta bere tresna nagusia POCTEFA mugaz gaindiko eta eskualde arteko Programa Eragilea da.

(informazio+ iragarpena) (hasiera) (hitzaldiak) (Nafarroako irteera) (Hendaia-arakoa) (Ondorioak)

> NAEN euroeskualdeak Berrikuntzarako 2022ko laguntzen deialdia egin du

400.000 € banatuko ditu 3 lurraldeetako eragileak barne hartzen dituzten 6 gai esparrutako proiektuen artean

Akitania Berriko, EAEko eta Nafarroako era guztietako erakundeak dute aukera, honako arlo hauetan berrikuntzak egiten dihardutenak: biozientziak, osasuna eta adinekoen ekonomia (Silver Economy); fabrikazio aurreratua, aeronautika eta mugikortasun elektrikoa; nekazaritzako elikagaien industria eta elikadura osasungarria; energia berriztagarriak; habitat iraunkorra, basoak edo zura; eta sormen-, kultura- eta ikus-entzunezko industriak.

(informazio+)

> Europako Gizarte Funtsa Plus: 2021-27 Programa Euskadirako. 79 milioi gizarteratzeko eta laneratzeko

Programa erakundeen eta herritarren ekarpenen fasean sartu da.

Europako Batzordearen oniritzi informalaaren eta Enplegu Foroarekin eta Gizarteratzeko Euskal Kontseiluarekin landutako diseinuaren ondoren, Euskadiko EGF+ 2021-2027 Programa irekita geratu da interesdunen oharrak jasotzeko, azaroaren 19ra arte. Bereziki gazteen eta gizarte-egoera ahuleko kolektiboen laneratzeari begira jarraituko du.

(informazio+)



> **EBren Kohesio Politika, krisien aurkako tresnatzat aldarrikatu da Eskualde eta Hirien Europako 20. Astean**

Eskualdeen arteko birbanaketa egoera bakoitzera eraginkortasunez egokitzen den funtsezko motorra izaten darrai

Europako Batzordeak eta Eskualdeetako Komiteak nabarmendu dute Kohesio Politika eraginkorra izan dela ondoz ondoko eta elkarri lotutako krisien aurrean – pandemia, Errusiak Ukraina inbaditzea, energia-krisia –, baita hazkunde-motorra eta faktore aglutinatzailea ere. Egungo inflazioaren eta pobrezia energetikoaren aurrean, gizartea berdintzeko faktorea izango da, eta inbertitzeko tresna nagusia hiri eta eskualdeentzat, bereziki EBko ekialdeko behartsuenentzat, baina garatuenei ere mesede egin die argi eta garbi. COVID-19ari aurre egiteko premiazko inbertsioak, REACT-EU programan, eskualdeko laguntzen edo kohesio-funtzen egituren bidez bideratu ziren. Halaber, Europako Errefuxiatuentzako Kohesio Ekintza bat sortu zen (CARE), inbertsioak sustatu dira azpiegituretan, trantsizioan eta energia-eraginkortasunean, eraikinena bezala, eta inbertsio pribatuaren mobilizazioa Bidezko Trantsizio Tresnarekin.

(informazio+)

> **Erreka, Hadimek, Miramoon, Gaia, Sesosgi eta Seteco nabarmendu dira Hazitek eta EGEFek lagundutako proiektuengatik**

Eusko Jaurlaritzaren I+G programa EGEFren euskal programaren oinarrietako bat da

Proiektuetara bideratutako funts propioez gain, parte hartzen duten enpresa eta erakundeek Eusko Jaurlaritzaren laguntza jasotzen dute, eta azken horretatik % 50 Eskualde Garapenerako Europako Funtzaren 2014-20 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Programa Eragileak osatzen du. Gaia kluster teknologikoa, Sesosgi zerbitzu soziosanitarioetako enpresa eta Seteco enpresa teknologikoa dira laguntza hauek izan dituzten 3 bazkide gipuzkoar, bakardadea duten adinekoren bizitza hobetzen duen Bakarlan proiekturako. Miramoon Pharma, Biodonostiatik eta EHUtik sortu zena, endekapenezko gaixotasunen aurkako botika berritzaileak garatzen ditu. Errekak, berriz, Megawind partzuergoan lan egiten du, itsas kokaleku baterako diseinatutako errota eolikoaren zimenduetan berrikuntzak eginez, eta Hadibekek Errekarekin ere lan egin zuen "Hazitek proiektu" batean.

(informazio+-Bakarlan) (informazio+ -Erreka) (informazio+ -Miramoon) (informazio+ - Hadimek)



EB 2024: ESTRATEGIA

> Aldundiak MUGI sistema aurkeztu du eskualde eta metropoli-eremuen Europako Metrex Sarean

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru kargudunek Europako esperientzia berritzaileak partekatu zituzten Amsterdamen

Rafaela Romero diputatua aipatutako bi esparruetako zuzendariekin izan zen sare horren udazkeneko konferentzian. Metrex-en presidentearekin eta Amsterdam eta Lyongo metropoli-eremuetako ordezkariekin bildu ziren. MUGI txartel bakarraren sistemarekiko interesa nabarmendu zuen, jardunbide egoki gisa hartzen dute eta, eta bertaratuek salbuespenezko eredutzat hartu dute. Hiriguneetako garraioen etorkizuna aztertu zen, energiari, gizakiei edo gobernantzari dagokienez.

[\(informazio+\)](#)

> Europako etxebizitza-ereduei buruzko erakusketa batean parte hartu zuen Aldundiak Donostian, Europan ekitaldiarekin lotuta

"Bizimoduak, bizitzeko Europako moduek" etxebizitza publikoko 8 proiektu aurkeztu zituzten, Eusko Jaurlaritzarekin eta EJZrekin batera.

Erakusketa 2023ko martxoaren 5era arte dago zabalik Euskadiko Arkitektura Institutuan (JEZ), eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak babestu dute. Etxebizitza sailburuordeak nabarmendu du etxebizitza publikoak "Europako nortasunaren ezaugarrietako bat" direla. Aukeratutako adibideek badute zerbait komunean: guztiak izan ziren Europan lehiaketaren hainbat ediziotan aintzatetsitako proiektuak, Europa mailako bi urtez behingo deialdi bat, 2021ean Donostian egin zena.

[\(informazio+\)](#)



> 2022ko urria

> UPV/EHUko Gipuzkoako campusean Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko Prestakuntza Dualaren 2. Kongresua egingo da

Euskadik 2019an hartu zuen jada nazioarteko unibertsitate-kongresu honen lehen edizioa

150 pertsona baino gehiagok, tartean hamahiru autonomia erkidegotako unibertsitateetako ordezkariak, parte hartu zuten urriaren 7tik kongresu honetan. Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Unibasqek, Adegik, Confebaskek eta IMH Campusek UPV/EHUrekin elkarlanean jarduten dute kongresu horretan. Horrela, kongresuaren inaugurazioan Eva Ferreira Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea, Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusia eta Jokin Bildarratz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua izan ziren.

(informazio+)

> Foru Aldundiak eta Nextek The Break: 14 ekintzaile europarrek lan egiten dute Gipuzkoan karbonorik gabeko enpresaren alde

Estatuko Next planaren ekimen honetan, 24 egunez gure enpresa-sarearekin erlazionatzen dira.

"The Break" Emakumeen Ekintzailtza Erakartzeko Programa berria da, Industria Ministerioaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan dagoena. Programa honen helburua Europako 140 ekintzaileri harrera egitea da, estatuko enpresa- eta industria-ekosistema ezagut dezaten. Naturklima eta Impact Hub Donostiaren eskutik, Gipuzkoa izan da ekintzaile taldea hartzeko estatuan aukeratu dituzten 12 helmuetako bat. 2022ko urria eta azaroa bitartean haien eta lurraldeko enpresen artean esperientziak trukatzeko da asmoa. Landuko duten tokiko erronka nagusi bat estrategiak eta irtenbideak diseinatzea izango da, Naturklima agentziak sustatzen duen Borondatezko Funtsaren bidez karbonoaren konpentsazioan Gipuzkoako enpresen borondatezko inplikazio handiagoa sortzeko.

(informazio+)



> 2022ko urria

> **EBko Next funtsek Andoain eta Tolosaldeko eguzki-energiako komunitateak ere babesten dituzte**

Aldundiak 18 komunitateren buruaskitasuna bultzatzen du Tolosaldean. Andoainen 250 etxe daude

“Eredua oso ondo funtzionatzen ari da: udalek eraikin publikoen estalkiak lagatzen dituzte plaka fotovoltaikoak jartzeko, Ingurumen Sailak eta Europak inbertsioa diruz laguntzen dute eta herritarrak oso baldintza eskuragarrietan sartzen dira” adierazi du Jose Ignacio Asensio Ingurumeneko foru diputatuak Andoainen.

Pobrezia energetikoaren diagnostiko bat ere aurkeztu du Tolosaldea Garatzen garapen agentziarekin batera. Ildo horretan, eskualdean 18 komunitate energetiko daude martxan, eta horiek bultzatzen ari dira Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuaren eta Next Generation funtsen laguntzarekin.

([informazio+](#) - Andoain) ([informazio+](#) - Tolosaldea)

> **Eibarko 5. Climathon ikasleek energiari buruz hausnartzeko Europako sare baten parte da**

Foru Aldundia, EIT Climate-KIC, Ingeniaritza Eskola eta Eibar inplikaturik daude

Eskolako ikasleek egungo larrialdi handieneko gai honi buruzko hausnarketa prozesu bat egin dute, urriaren 21etik 23ra. EIT Climate KIC Europako Berrikuntza Institutuko Klimaren aldeko Berrikuntza eta Ezagutza Erkidegoa da. Beste erakunde bultzatzaile bat Eibarko Udala da, Climathon bultzatzen duena Covenant of Mayors (alkatetzen aliantza) nazioarteko sarearen esparruan.

([informazio+](#))



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

- > **Zainketei buruzko inkesta eta EBrekiko konparazioa: Matia Fundazioak Europako InCARE proiektuan parte hartzen du**

Europako Batzordearen EaSI programak eta EBko erakundeen sare batek babestu dute

Matiak Imsersorekin batera parte hartu du, proiektu horren testuinguruan, Espainiako zainketen esperientziari buruzko inkesta bat aztertzen eta EBko gainerako herrialdeekin alderatzen; hori guztia tokiko inguruneei lotutako iraupen luzeko zainketak hobetzeko ekimen pilotuak garatzera bideratuta dago. Ekimen europar honen gainerako ekintzak Gizarte Ongizate eta Ikerketa Politiken Europako Zentroak koordinatzen ditu.

(informazio+)

- > **Euskadirako 2021-2027 Europako Plus Gizarte Funtzaren Programa Eragilea**

(informazio+)

- > **Kohesioari buruzko 8. Txostena: Kohesioa Europan 2050erako.**

(informazio+)

- > **EBrako adituen txostena, hezkuntzako eta prestakuntzako inbertsioei buruzkoa**

(informazio+)



> 2022ko urria

> COFOEtik Konbentziara? Euskadik EBn duen ordezkartzaren txostena

EBren Etorkizunari buruzko Konferentziak bere Tratatuak erreformatzeko Konbentzio batera eramán dezakeen eztabaidatzen da.

([informazio+](#))

> Elikaduraren eta nekazaritzaren etorkizunari buruzko gailurra. EBrako Euskadiren Ordezkaritzaren txostena

Gaiak: Europako Itun Berdea, elikadura-etiketak, pestizidak eta animalien ongizatea.

([informazio+](#))

> Bioekonomiari buruzko Konferentzia 2022. Euskal Ordezkaritzak EBn egindako txostena

Itun Berdea garai zailetan gaitzeko lelopean, Bioekonomiari buruzko EBren txostena aurkeztu zen.

([informazio+](#))

> Eskualde eta Hirien Europako Astea: Euskadiren EBrako Ordezkaritzaren txostenak

2 txosten, Europako elikadura-sistemen iraunkortasunari eta eskualdeetako jardunbide egokiei buruzkoak.

([informazio+](#) – urr.11ko tailerra)

(– urr.12ko tailerra.)



EUROPAKO DEIALDIAK

> Euroeskualde Berrikuntza: NAEN Euroeskualdearen mugaz gaindiko proiektuetarako deialdia.

- *Parte hartzeko eskaera - Euroeskualdeko web orria*

Aurrekontua, guztira: 400.000 euro.

Sektore estrategikoak:

- Biozientziak, osasuna, Zilarrezko Ekonomia (pertsone nagusia).
- Fabrikazio aurreratua, aeronautika, mugikortasun elektrikoa
- Nekazaritza eta elikadura osasungarriaren industria,
- Energia berriztagarriak
- Ingurumen iraunkorrak, basoa, zura
- Sormen- eta kultura-industriak, Ikus-entzunezko industria.

Onuradunak: elkarteak, erakunde publiko eta pribatuak, enpresak, udalak, etab.

Akitania Berria, Euskadiko eta Nafarroako Euroeskualdeko lurralde bakoitzeko bazkide bana, gutxienez.

> Creative Europe. Kulturaren atala. Ondarearen Europako etiketa bat sortzeari laguntzea.

- *CREA-CULT-2022-EU-HERITAGE-LABEL*



> **Horizon Berrikuntza Esparrua: Gizarte Berrikuntza Katalizatzeko Misioren Funtsa.**

- [*HORIZON-MISS-2022-SOCIALCAT-01-01*](#). Funtsak gizarte-berrikuntza arrakastatsuak erreplikatu, zabaldu eta hedatu nahi ditu.

> **Erasmus Programa. Hezkuntza-politikak aztertzeke ildoak: baterakuntzak. Tituluenak edo unibertsitate-alianteen legeko estatusenak.**

- [*ERASMUS-EDU-2022-POL-EXP-EUstatus*](#). Goi-mailako hezkuntza-erakundeen aliantzetarako Europako lege-estatus bateratu baten bideragarritasuna aztertzeke lankidetzatresna pilotuak finantzatzen ditu.
- [*ERASMUS-EDU-2022-POL-EXP-EUdegree*](#). Titulazioen asimilazioa aztertzeke lankidetzarako tresna pilotuak finantzatzen ditu.

> **Erasmus Programa. Hezkuntza-sareei laguntzeke ildoak**

- [*ERASMUS-EDU-2022-NET-EDU-MIGRANTS*](#). Haurren eta gaztedi migratzaile-ohien hezkuntzaren eremuko politiketarako buruzko sare bati laguntzeke.
- [*ERASMUS-EDU-2022-NET-SCHOOL-HEADS-TEACHERS*](#). Politiketarako, irakasleei eta hezkuntza-lideretarako buruzko sare bati laguntzeke.

"EUROPAR FUNTSAK GIPUZKOAN" Webgunea